

Teknopolis hutsik egin gabe

Beñardo Kortabarria Olabarria
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

Teknopolis saioaren zortzigarren aldia. Urtarrilaren 22an agertuko da jendaurrera, ETB2n eguerdian, eta iluntzean ETBko lehen katean. Aitziber Agirrerren irribarrea ikusiko duzu lehenbizi, irakurle, eta haren ongietorria jasoko duzu. Segidan, 2006ko **Teknopolis** honen kareta berritua agertuko zaizu.

URTE BERRIAREKIN, ABIADA BIZIAN IRITSIKO ZAIZKIZU hango eta hemengo ikertzaileek garatutako punta-puntako berrikuntza teknologikoei buruzko erreportajeak, oinarizko zientziari buruzko zertzeladak, asteko berri berrienak, zientziaren historian izana eta izena izan dutenen esaldi gogoangarriak... guztiak **Teknopolis**-ko erredaktore-taldeak ekarritakoak: Maria Agirre, Beñar Kortabarria eta Bego Zubia kazetariak, eta Ainara Belaustegi eta Eneko Imaz biologoak.

Berrikuntzaren jantzia soinean aurkeztu zen iazko **Teknopolis**, aurreko urteekin alderatuta aldaketa ugari egin zirelako. Jantzia ez du aldatuko telebista-saioak, egindako berrikuntzetan sakontzea du helburu eta.

laz abiatutako bidetik, ikusgarritasunari —begietatik berez sartzen den horri— lehentasuna eman nahi zaio. Lan zaila, gertatu bai, baina begiz ikus ezin daitekeen gauza asko baitago zientzian.



Aitziber Agirre



Beñar Kortabarria



Bego Zubia



Ainara Belaustegi



Maria Agirre



Eneko Imaz

Grafismoak, hortaz, presentzia gero eta nabarmenagoa izango du saioan. Kameran objektiboek harrapatu ezin dutena marraztu eta erakusteko ahalegin berezia egingo da.

Helburua ikusgarritasuna izanda, programaren egituraren ere bizitasuna bilatuko da. Erreportaje luzeak motzagoekin tartekatuko dira, patxadaz eta sakontasunez egindako elkarrizketak motz-motzean emandako berriekin, bitxikerian edo ikuspuntu ezezagunean oinarritutako tartetxoak mezu zehatzak hedatuko dituzten lanekin... Kaosaren argazkia dirudi aurreko guztiak, ez hankarik ez bururik duen zerbait, baina ez da horrela, badu gidari-lana egiten duen hariren bat edo beste. Zurruntasunik eza bera, apropos bilatutako zerbait izanik, izan daiteke bat.

Teknopolis saioa egin ahal izateko, dena den, aurreko urteetako formulara jo behar izan da; hau da, telebistak baliabide teknikoak jarriko ditu, eta Elhuyarrek, berriz, giza baliabideak.

Hori dela eta, **Teknopolis**-ek erakundeen eta enpresen babesak izango du zortzigarren aldi honetan ere. Saioaren babesleak hauek dira: Eusko Jaurlaritzako Industria, Turismo eta Merkataritza Saila, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Mondragon Unibertsitatea, Fagor, Euskal Herriko Unibertsitatea, Ingelectric Team, Policlinica Gipuzkoa eta Eusko Tren. Horien laguntzarik gabe, ezin izango litzateke telebista-saioa egin. 